

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Kepa Junkeraren
kontzertua /08**

AJSIALDIA

**Uretako parkean
jolasak umeentzako /09**

LEINTZ GATZAGA

**San Milixanei
errepassoa /10**



ALBERTORI BEGIRA

AZAROAREN 27AN OMENALDIA EGINGO DIOTE

ELKARRIZKETA: JOSU ATXAGA, ARETXA PLATAFORMAKO KIDEA • KIROLAK: ALBERTO PEREZ/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 20
ITURRALDE. Mitarte 18. 943 79 27 22

DOMEKA, 21
ITURRALDE. Mitarte 18. 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------------	--------------

LARRIALDIK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA
Baserrri inguruan sortzen den plastikoa bilduko dute, hilaren 23an. Arratsaldean utzi behar dira plastikoak, honako toki hauetan:
Lausitan, Izurietako bidegurutzetik 100 metrora, Bainuetxean, Mendiolako bide parean, edo Oroko bidegurutzean.

AKORDEOI KONTZERTUAK
Zapatuan, hilaren 20an, 20:30ean, Aretxabaletako Parrokian akordeoi kontzertua. Herriko akordeoi orkestrak eta Sabadellgo Akordeoi Orkestrak esku hartuko dute. Domekan, hilak 21, 13:00etan, Eskoriatzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskainiko dute kontzertu hori.

BAZKARIRA JOATEKO IZENEMATEA
Datorren zapatuan, hilak 27, Alberto Etxebarriari omenaldia egingo diote. Bazkarira joateko izenematea Murruxikon egin behar da, martitzena baino lehenago. Taberna-Berri jatetxean izango da bazkaria.

HAINBAT IKASTARO AUKERAN
Aretxabaletako Institutuak ikastaro bi antolatu ditu, langabezia daudenei zuzenduta. Mekanizatuen gainekoa izango da bat, eta geriatriaren ingurukoa bestea. Informazio gehiagorako dei egin: 943 79 79 00 telefono zenbakira.

LORAMENDIREN AGENDA

JOSU VELASCOREN EMANALDIA
Bizikletaz egindako bidaiaren berri emango du Josu Velascok, Kurtzebarri eskolan, 19:00etan. Udaletxe zaharrea egin behar zuten emanaldia, baina tokiz aldatu dute. Loramendik eta Murruxikok antolatu dute emanaldia.

ORAINDELA 23URTEARETXABALETAN



Gregorianoa abesten hasi ziren herriko abesbatzako kideak

1981. urtean hasi ziren Abesbatzako kideak kantu gregorianoa ikasten. Gainera, Silosera joaten ziren gehiago ikastera, eta lanak emaitzak ekarri zituzten: Tolosako Abesbatzen lehiaketan sei domina lortu zituzten. Disko baten grabaketan ere esku hartu zuten, beste abesbatza batzuekin.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Gor”

Gorra.
—Egundoko gorra ein jakon kontzertuan.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



ANTZERKI EMANALDIA

Azaroaren 25ean
18:00etan
4-6 urteko umeendako

Oraingo honetan, datorren astean liburutegian izango den antzerki emanaldi baterako proposamena egin nahi dizuet. Xalto eta Brinko taldearen eskutik, Zabarre pirataren itsasontzian izeneko antzezlanaren ikusteko aukera izango da. Emanaldia 4-6 urte bitarteko umeendako izango da, eta gurasoek kanpoan geratu beharko dute.

Xalto eta Brinko ikasle bi dira, eta eskolan, Zabarre pirataren kantua abesten ikasi dute. Ondoren, arratsaldean, lagunekin itsasontziak ikustera joan dira.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzearan zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Matikua jatetsxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

SANER


ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ATREBENTZIAEZPADA/ Herrixe Gabonetarako apaindu egin biher da? Eta etxie apainketan dozu?




VIDAL VELA
langillie



NEREA ANTIXIA
langillie



MARI CARMEN GARTZIA
langillie



ADOLFO LOZANO
erretiraue



JOXAN ORTIZ DE MENDIBIL
langillie



MÓNICA PEREZ
langillie

Herrixen zerbait ipinttien aldekie naz, Gabon girue emuten dutzo eta. Neri kalie apainddute ikustiek poztasuna emuten dust. Hala eta be, arbolie biherrien, kalien argixek jarriko neuke.

Iguel jat herrixe apaindu edo ez, baiñe umiei gustetan jakuela uste dot. Egixe esatiarren, Gabonak ez dittut oso gustoko. Nik neuk etxien ipintten dot zerbait, baiñe hori be umiegatik.

Gabonetako girue ez jat askorik gustetan, baiñe kalien arbolie eta argixek ipinttie ondo dauela uste dot. Herrixei girue emuten dutzo. Etxien be ipintten dot zerbait.

Bai, gustetan jat herrixen argixek eta arbolie jartie. Politte dana, beti politte. Poztu egitten nau Gabonetako giruek. Etxien be andriek jarten dau zerbait, giruen sartzeko.

Nik uste dot herrixen zerbait jartziek animau egitten dauela. Umiei be gustetan jakue. Etxien dou zerbait, baiñe ondiokan ez dogu ipiñi, goix dala uste dogu eta.

Bai, gustetan jat argixek eta holako gauzak jartie, animau egitten dauela uste dot eta. Etxien be badauket jarteko asmorik, batez be umiegatik. Ondiokan goix da horretarako, baiñe laster.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK PAPERONTZIAK ZULATUTA Argazkian argi ikusten den moduan, batzuetan alferrik izaten da zaborra botatzea, bereziki, paperontziak zulatuta egoten badira. Aurreko batean, argazki hau atera genuen Andra Mari auzunean, baina herrian badira egoera horretan dauden paperontzi gehiago ere. Horrela egon behar badute, hobe kentzea. /M.A.

ETABARRUAN...

GIZARTEA /04 POLITIKA /05 KIROLA /06

Azaroaren 27an omenaldia

Dena gertu dago azaroaren 27an Alberto Etxebarriari omenaldia egiteko. Irailean hil zen Alberto.

Josu Atxagari elkarrizketa

Aretxa plataformako kideari, Josu Atxagari, elkarrizketa egin diogu Udalaren egungo egoeraz.

Alberto Perez azkarrena

Domekako Behobia-Donostia lasterketan, Alberto Perez izan zen aretxabaletarririk azkarrena.

ASTEKODATUA

1.200

EGUTEGI ATERA DITU MURRUXIKO ELKARTEAK

Datorren urteko egutegiak atera ditu Murruxikok, guztira 1.200, eta 600 bazkideei bidaltzeko izango dira. Gainontzekoak datorren astean banatuko dituzte, mendiaren gaineko astearen baitan.

BESTEKEESANA

“Arazo handienak diruarekin lotutakoak dira. Gaur egungo Arrasate Eskubaloi Taldearen kezka nagusia, ordea, ez da ekonomikoa. Une honetan, gure erronka nagusia kirolarekin zerikusia daukana da. Helburu nagusia lehen maila territorialean dabilen senior mutilen taldeak mailaz igo dezala da eta, ahal dela, hurrengo, lehen maila nazionalera igo dezala. Horregatik, une hau aprobetxatu gura dut eskatzeko gure kirolariei daukaten gutzia eman dezatela, elkartean lanean gabiltzanok itxaropen handia daukagulako euren dohainetan. Bestalde, gazte mailako nesken taldean ere itxaropen handia jarrita daukagu aurten. Iaz oso gustura aritu ziren eta aurten, akaso berriak direlako.

MARIANO ARRIETA
‘ASTELEHENEKO GOIENKARIA’/04-10-15

HERRITARRENBERBAK/ Arantza Jaka



Itsasoan laino dago...

Hain ezaguna den abestiaren hitzak... Eta, aldi berean, Hondarribiako herriarekin lotuko duen melodia... Gipuzkoako herri eder hau gure lurraldearen beso ireki bat da, eta itsasoari zabalik egonik Iparraldea agurtzen duena. Baina, zoritxarrez, azken aldian bere izena, izana eta izatea lausotu dira. Gazte baten heriotzak lausotu du, eta gure gizartean gauzatzen edo eta txertatzen ari den arazo larri bat bere gordintasunean azaldu du. Zergatik gure munduak alferrikako heriotzak (alferrikako lainoak) behar ditu jarrera batzuk bidezkoak ez direla onartzeko? Denak urdurik jartzea irtenbideak bilatzen hasteko? Eta erantzuna aurkitzea ez da dauka: bizitzaren zentzurik, etikarik edota filosofiarik, orokorrean, ez dagoenean dena posible da. Orduan, besteak bihurtzen ditugu errudun, norberak

inongo ardurarik ez daukala: gizartea gaizki dago, irakasleak ez dute ondo lan egiten, erakundeak ez dituzte neurriak hartzen... Eta noiz hasiko ote gara geure burua inplikatzeko? Nork eraikitzen du, bada, gizartea? Denok. A!, baino argi daukagu zer-nolako gizartea eraiki nahi dugun? Zertarako bizi nahi dudun? Galdera ugari jar daitezke mahai gainean. Nortasunik gabeko gizartea eraikitzen ari gara, nortasunik gabeko pertsonak bihurtzen ari gara, nortasuna ezkututzen ari zaion herri baten partaide gara... Eta, gehienak, onartuaz, lasai, arazoak besteei konpontzea tokatzen zaielako; eta ni, bitartean, gertakariaren ikusle bat besterik ez. Horrela, bizitzaren itsasoa berriro ere lainotuko da; bizitzaren itsasoan zaila gertatuko zaigu aurrera pozik, itxaropenez eta gogoz begiratzea. Gure bizitzaren itsasoan laino asko dago baina ez diezaiogun iluntzen utzi.

“Nortasunik gabeko gizartea eraikitzen ari gara, nortasunik gabeko pertsonak bihurtzen ari gara, eta gehienak lasai”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Derbixe zapatuan

Realak poztasun haundirik emuten ez dauenez, hobeto preferenteko UDAkuek ikustera fatie. Honeik behintzat golak sartzen dittue. Aurreko domekan be, hiru gol sartzeko kapaz izen zien. Eta bixer, zapatue, derbixe jokatu dauie, Mondran kontra. Partidue ikusgarrixer izengo dala uste dot nik. Animetan fan biherko gare.

Bestela, herriko erdialdien zabaldu dauien denda barrixe da notizia. Kilometruak jaixe dala eta, erropa modernuek saltzen hasi die, eta danetik gainera. Jesus! Zer ez dauen denda barruen. Ederto jarri dauie dendie, baiñe ni apur bat arduraketan nau, herriko beste dendak ez ote dauien saltzerako orduen igerriko. Gabonak be badatoz eta... Badakit-zue, herrixen bestela be komertziue ez da oso fuertie, eta denda barri hortan danetik dau saltzen. Espero dot, denda bakotxak bere bezeruek eukiko dittuela, eta danak be Gabonetan asko salduko dauie. Izen be, Kurtzebarrik jarri dau txapel zurixe, eta apurka-apurka bagoiez Gabonetako giruen sartuaz.

Eta besteik ez. Hori bai, zutako norbaittek kintto bazkaixe edo afaixe badauko, ba ondo ibilli. Izen be, holako zenbat dazen azkenaldixen!

GIZARTEA/ Azaroaren 27an omenaldia egingo diote Alberto Etxebarriari hainbat elkarte eta lagunek

Mendizale, bidaiari, argazkilaria eta laguntzaileari omenaldia

MARIA AGIRRE

Askok eskertu nahi diote egindako lana. Lagun asko zituen Albertok, hainbat elkartetan parte hartzen baitzuen, ekintzak antolatu eta laguntzaile lanetan. Baina bidaiari sutsua ere bazen, eta bidaiaria haietan lagun minak egin zituen aretxabaletarrak.

Egindako lana eskertu bai, baina azaroaren 27an batez ere laguna omendu nahi dute. Han eta hemen ibiltzearen ondorioz, lagun ugari baitzuten Albertok.

Datorren zapatuan jende ugari elkartuko da herrian omenaldian parte hartzeko. Inguruko jende ugari izango da, baita Madrildik etorritako lagun talde bat ere.

MURRUKIXOREN SORTZAILEA

Astelehenean, hilak 22, hasiko da Murrukixoren Mendi Astea, eta, zelan ez, elkarteko sortzaile eta hasierako urteetan presidente izandakoa izango da ardatz mendiaren gaineko astean. Murrukixoko lagunek esan digutenez, zazpi urtez izan zen Alberto elkarteko presidente, eta mendira joatea baino, ekintzak antolatzea zuen gogoko. Inurrategi anaiei ere lagundu zien, bereziki, hasierako urteetan. Eta azken urteotan, nahiz eta zuzendaritza batzordean kargurik ez izan, noizean behin agurtzen zen mendi elkartearen batzarretara. Hori bai, lanak uzten zionean, zuen lanagatik askotan kanpora joan behar izaten baitzuen.

Albertoren beste zaletasunetarikoa bat argazkigintza zen. Bidaietan argazki ugari ateratzen zituen, baina zaletasun handia zuenez, herriko argazki taldean esku hartzen zuen. Horregatik, datorren zapatu iluntzean, Albertoren argazkiekin osatutako diapositiba emanaldia eskainiko dute. Bidaietako argazkiak ikusi ahal izango dira, baina baita Aratusteetakoak ere, lagunekin batera beti moztortuta ateratzen baitzen kalera.



Bidaiatzea oso gustuko zuen Albertok, eta beti kamera hartuta joaten zen.

Zaletasunak bai, baina laguntzeko astirik ere ateratzen zuen, eta, esate baterako, Arrasate Musikaleko bandari laguntzen zion. San Juan eguneko eta abenduaren 31ko kontzertuetarako beti egoten zen gertu, eta instru-

mentuak furgonetaz eramaten laguntzen zuen. Horregatik, Arrasateko bandako 60 lagunek esku hartuko dute kalejira batean. Murrukixoren ereserkia joko dute, besteak beste, 1986an Jose Ramon Vitoriak egindakoa.

Mundua ezagutu nahi zuen

Alberto ez zen abuztuan herrian geratzen zen horietakoa. Oporretan alde egiten zuen, eta munduko hainbat bazter ezagutu zituen. 1993an hasi zen Madrigo talde batekin bidaiatzen, eta urte hartan Indonesiara joan ziren. Ordutik aurrera urtero-urtero talde horrekin bidaiatu zuen, eta aurten Txinan egon dira. Lagun talde horretako Aureak esan digunez, Alberto bidaietara joateko lagun ona zen, beti laguntzeko gertu izaten zelako. Atzerrira joaten zirenean, ikusmin handia pizten zuen Albertoren sabel handiak, eta denek ukitu nahi izaten zioten. Autobus gidariekin hartu-eman onena Albertok izaten zuen, eta ingelesa ez zen oztopo izaten. Adar-jotzailea ere bai: Txinan, hainbat laguni esan zien *kaixo* hitza gaztelaniaz *Ave Maria Purisima* esaten zela.

OMENALDIKOGITARAUA

AZAROAK 27

09:30 Murrukixoko lokaletik irteera Kurtzebarriara
11:30 Omenaldia
14:30 Bazkaria Taberna-Berrin
18:30 Arrasate Musikaleko bandaren kalejira

Albertoren bidaiak

NOIZ	NORA
2004	Txina
2003	Filipinak
2002	India hegoaldea
2001	Madagaskar
2000	Vietnam
1999	Iran
1998	India, Rajastan, Orissa
1997	Namibia, Botswana, Zimbawe
1996	India iparraldekoa, Bhutan
1995	Laos, Birmania, Thailandia



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

JOSU ATXAGA / ARETXA PLATAFORMAKO KIDEA

“Borondatea egonez gero, dagozkigun zinegotziak gure esku egon daitezke”

M.A.

Batasunaren ilegalizazioaren ondorioz jaiotako plataforma da Aretxa. Gaur egun ez dute ordezkartzarik Udalean, baina zinegotzi bi dagozkiela diote, eta horren alde egingo dute. Josu Atxaga plataformako kide da.

Has gaitezen berrienetik. Aralarrek proposamen bat egin dizue. Zer iruditzen zaizue?

Duela aste bi hartu-emanetan jarri ginen Aralarreko kideekin, eta udal kontseilu bat abian jarzea proposatu ziguten. Hala ere, asmo hori ez da berria, ilegalizatu gintuztenean ere gauza bera proposatu ziguten. Ez dugu uste apartheid egoera gainditzeko eraginkortasunik duenik, baina ezetzik ere ez diogu esaten. Aralarrekoekin hartu-emanetan jarriko gara laster, eta honetaz berba egingo dugu.

Eta zuen proposamena zein da?

LOREG 182.2 artikulua oinarri hartuta, zinegotzi batzuek dimititzea eskatzen dugu. Era horretan, Aralarren laugarren eta EA Jren seigarren zinegotzien karguak gure esku utziko lituzkete. Hauteskundeetako emaitzen arabera, zinegotzi bi dagozkigu. Hain justu, hori eskatuz mozio bat aurkeztu dugu udaletxean, baina oraindik ez da osoko bilkuran aztertu.

EA Jk eta Aralarrek ez dute gustuko proposamena. Zergatik?

Diote ez dela bideragarria, baina legea hor dago, eta borondatea egoten bada aukera bat izan daiteke dagozkigun zinegotzi biak lortzeko. Espainiako hauteskunde batzordeak izango du azken hitza.

Orain ez zarete Gobernu Batzordeetara joaten. Zer dela eta?

Hasi zen gutako bat Gobernu Batzordeetara joaten, baina ikusi zen era horretan ez dugula benetan erabakitze eskubiderik. Eskubide ekonomikorik ere ez dugu. Gobernu Batzordeetan egonez, ez goaz inora. Gainera, gure hitza ez zen kontuan hartzen.



M.A.

“Gobernu Batzordeetara ez goaz, ez dugulako erabakitze ahalmenik”

Eta zer iritzi duzue Udalak azkenaldian egindakoaz?

Kultura proiektu berria egin da, eta pena da, aurreko agintaldian talde guztiak egon ondoren egin baitzen beste bat. Lan handia egin zen orduan, eta proiektu hura alde batera utzi dute. Bestalde, izugarria izan zen, hauteskundeak pasa berri eta alkatea izendatu baino ez zutenean egin, egunkari batean kirol etxeko eta Lausitara bitarteko etxebizitzak zein enpresak egingo zituen jaki-

“Osoko bilkuretara joango gara, iritzia eman eta zinegotzi bi dagozkigula gogoraraztera”

tea. Euskara Biziberritzeko Proiektuari dagokionez, berriz, hainbat ekarpen egin berri ditugu. Hutsuneak ikusten ditugu proiektu horretan, euskararen erabilera ez dela bermatzen uste dugu. Leku publikoei lehentasuna eman behar zaie erabilera indartzeko.

Aurrera begira, zer?

Osoko bilkuretara joango gara, gaien inguruko iritzia eman eta zinegotzi bi dagozkigula gogoraraztera.

Herriko antzezlan bat estreinatuko dute gaur

M.A.

Gaur, egubakoitza, estreinatuko dute *Singing euripean* antzezlan, herritarrek egin eta antzetzuko dutena. Herrian estreinatu ondoren, beste herri batzuetan antzetzeko asmoz. Gaur emanaldi bi izango dira: 19:30ean eta 22:00etan, udaletxe zaharrean.


Singing euripean herritarrek egindako antzezlan da, eta gainera, herriko hiru aktorek antzetzuko dute: Kattalin Antxia, Igone Zaloña eta Beñat Zamalloak. Zuzendari lanetan, berriz, Iurgi Etxebarria ibili da. Trikimailu izena jarri diote taldeari.

Antzezlanaren gidioia Beñatek idatzi zuen, eta irailerako bukatu zuen. Entseguak, berriz, urrian hasi zituzten. Hainbat pertsonaia euripean dituzten bizi-pen berri kontatzen da *Singing euripean* obran, eta 30 minutu irauten du. Aretxabaletan aur-

keztuko dute gaur, eta ondoren, beste herri batzuetan antzetzuko dute. Loramendik egingo ditu koordinazio lanak; izan ere, euskara elkarteak antolatutako antzerki ikastaro baten harira sortu zen antzezlan egiteko aukera. Iurgi Etxebarria zuzendariak esan digunez, gustura daude egin duten lanarekin, eta ikusleek aterkirik gabe joan behar badute ere, euri zaratarik ez da falta izango eta ura ere ikusiko da, antzezlanak irauten duen bitartean.

SAIO BI IZANGO DIRA GAUR

Herrian ikusmira sortu du antzezlanak, eta horregatik, gaur saio bi eskainiko dituzte: 19:30ean eta 22:00etan, udaletxe zaharrean. Bakoitzean 60 lagunendako tokia izango da, eta eserlekuak erraz beteko direla uste dutenez, bi emanaldi egitea pentsatu dute. Izan ere, hiru antzezleak herrikoak dira, eta lagun eta familiarrekin bete egingo da.



Etxebizitza zerrendak ikusgai daude

Udalak finkatutako salneurrian salduko dituzten etxebizitzak direla eta, astelehenean jarri zituzten ikusgai onartu eta onartu ez dituzten zerrendak. Orain, alegazioak aurkezteko aukera izango da abenduaren 9a arte. Urtea bukatu baino lehenago, 185 etxebizitza zozketatuko dituzte. Guztira, 286 lagun eskaria onartu dituzte, eta 500 lagunek baino gehiagok egin zuten eskaria. Kirol etxean hasi eta Lausitara bitartean egingo dituzte etxebizitza horiek.

DANBAKA))))))

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

IKUSLEAREN SARIA
Gasteizko Carrion musika dendaren eskutik bateria bat eta 1.000 euroko erosketa-txartela SMS mezu gehien jasotzen dituen taldearentzat.

SMS MEZUAK!

Gustukoen duzun talde, bakarlarri edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Zenbat eta mezu gehiago, irabazteko aukera handiagoa!
Mezuak bidaltzeko jarri: **DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA** eta bidali 7744 zenbakira. (Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.)

ALBERTO PEREZ/BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN PARTE HARTU DU

"Laster Donostiako maratoia korrituko dut eta gero Aizkorrikoa"

MARIA AGIRRE

Pozik dago Alberto, hura izan baita Behobia-Donostia lasterketan denborarik onena egin duen aretxabaletarra. Hala ere, ez dio horri garrantzirik ematen, eta 28an korrituko den maratoirako prestatzen ari da.



MARIA AGIRRE

Denbora bikaina egin zenuen joan den domekan Behobia-Donostia lasterketan.

1:14.54. Hori da nire denbora ofiziala. Lau aldiz korritu dut lasterketa hori, baina azken bi urtetan ez nuen parte hartu. Pozik nago, joan den domekan inoiz egin dudana denborarik bikaina egin nuen eta.

Espero zenuen?

Egia esan, bai. Entrenatzen ibili naiz, eta banekien gutxi gorabehera denbora hori egin nezakeela.

Gogor entrenatu zara?

Kontua da nik beti egiten dudala kirola. Mendira joaten naiz, bizikletaz ibiltzen naiz, futbitoan jokatzeko dut... Eta korrika beti egin izan dut. Tarteka bat edo bestea egiten dut, baina korrika oso sarri. Urkulun ibiltzen naiz korrika, txakurrarekin joaten naiz, eta hura ere atzetik etortzen da korrika.

Osasun azterketarik egin duzu?

Ez dut inoiz halakorik egin. Beno, lantegian egin izan dizkigute erresistentzia probak, baina propio kirolagatik, ez naiz halako probak egitera joan.

"1:14.54 egin nuen domekan. Pozik nago, egin dudana denborarik onena baita"

Zer moduz ikusi zenuen zure burua domekan?

Hasieran oso bizkor hasi nintzen, eta lehen zatian ondo ibili nintzen. Azken kilometroak, berriz, oso astunak egin zitzaizkidan, eta astiroago joan behar izan nuen. Gaintxurizketako alda ere erraz igo nuen.

Zeinekin joan zinen?

Arrasateko lagun batek eta biok egin genuen korrika, baina

lasterketa ikustera lagun gehiago joan ziren.

Aurreko gauean zer?

Hotz egiten zuen, eta etxean geratu nintzen. Batzuetan egin izan dut, lasterketa bezperan kalea atera, baina joan den zapatuan, ez.

Hotz egin zuen domekan. Eguraldi aproposa zuretzat?

Beno, ondo. Txarrena zain egotea izan zen, baina behin korrika hasita, eguraldiak lagundu egin zuen, bai.

Gustuko duzu Behobia-Donostia lasterketa?

Bai, asko gustatzen zait, oso giro ona egoten baita lasterketan. Jende askok esku hartzen du, eta gainera, ikusleek animatu egiten dute. Horrek asko laguntzen du.

Hemendik aurrera zein asmo dituzu?

Azaroaren 28an Donostiako maratoia korrituko dut. Iaz ere izan nintzen, eta ondo bukatu nuen. Hala ere, bukatzera atera nintzen, eta hiru ordu eta 33 minutu behar izan nituen. Oraingo honetan, ea zertxobait hobetzen dudana denbora hori, baina bukatuta ere nahikoa izango dela uste dut.

Hori egindakoan, deskan-tsua?

Ez dut uste, eta gainera, esan dizudana bezala, kirola egitea gustuko dut. Ez dakit, beharbada Aizkorriko maratoirako prestatuko naiz. Iaz ere buruan ibili nuen asmo hori, eta datorren urtean parte hartuko dudala uste dut. Orain ere ibiltzen naiz mendian korrika, beraz...



XABIER URTZELAI

Bihar, zapatua, derbia Mondraren aurka

Ruben eta Eriko dira argazkian ageri direnak, Mondrako eta UDA-ko kapitainak. Argazki bitxi hori atera diegu, derbia dela eta. Izan ere, derbiak desberdinak izaten dira, eta norgehiagoka handia izaten da. Baina une honetan, preferenteko UDA Mondra taldea baino indartsuago dago. Iturripen, 15:30ean hasiko da partidua, bihar, zapatua.

JOKATZEKOAK

ESKU PILOTA

Azaroak 20 kirol etxean
10:00etan Iñaki Kortza Iraul-tza Iturbe-Asier Mujika Jose Mari Carrillo
10:30ean Jon Ormaetxea Gor-ka Etxebarria-Anartz Agirre Xabier Larrañaga
11:00etan Xabier eta Oier Sarasua-Igor Oruesagasti Joseba Larrañaga

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 3 Pasaia 0 Preferentea	UDA-ARIZ 0 Union Txiki 3 Ohorezko jubenilak	UDA 3 Lengokoak 1 Ohorezko infantilak
Amara Berri 5 UDA-ARIZ 1 Lehenengo mailako jubenilak	Arizmendi 0 Zarautz 0 Infantil txiki	URKO 2 UDA 5 Alebinak
Antonio 1 UDA-ARIZ 6 Lehenengo mailako kadeteak	UDA-ARIZ 3 Gasteiz CUP 1 Emakumezkoak F-11	UDA-ARIZM 1 Gasteiz CUP 9 Emakumezkoak F-8
Urki 4 UDA-ARIZ 3 Bigarren mailako kadeteak		

LABUR

Hainbat aretxabaletar joan ziren Behobia-Donostia lasterketa korritzera

Alberto Perezen atzetik, Joseba Berezibar izan zen bigarren aretxabaletarrak azkarrena (1:17.01). Andoni Miguel, berriz, hirugarren (1:21.01). Eta atzetik aipatu beharrekoak: Unai Kerexeta (1:21.13), Roberto Etxeandia (1:23.33), Jon Urtaza (1:26.33),

Andoni Arkauz (1:27.12) eta Iñaxio Garro (1:27.21). Behobia eta Donostia arteko 21 kilometroak korrikalariz bete ziren, 11.350 lagunek parte hartu baitzuten. Giro ona izan zen nagusi, eta aurten ez zen nahigaberik izan.

Txapelketa berri bat abian jarri dute

Debagoienean, mutikoen txapelketa bat jarri dute abian: F-8 liga txapelketa. Bailarako herri guztietako taldeak daude jokoan, guztira sei talde. Tartean daude, Arrasate eta Aretxabaletako jokalariz osatutako Arizmendi A, B eta C taldeak.

Astelehenean hasiko da Murruxoren Mendi Astea, hainbat diapositiba emanaldirekin

Astelehenean, hilak 22, Ande Peruarren inguruko diapositiba emanaldia izango da, Mikel Sasiainen eskutik. Martitzenean, Joseba Urkia: Lenin Mendia. Eguaztenean, Murruxoko kideek piraguaz egindako irteeren inguruko diapositiba ema-

naldia eskainiko dute. Eguenean, Josu Velasco: bizikletaz bidaia. Egubakoitzean, hilak 26, Jon Beloki mendizaleak ikusentzunezkoa eskainiko du: *Jainkosen altzoan*. Emanaldi guztiak 19:00etan izango dira, Kurtzebarri eskolako aretoan.

Hirusta Jateketa

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Esko Sport

Intxaurtxueta 5
Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 96

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

O R L A

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

ERRETRATUZHARRA

Gregorio Gabilondori omenaldia

Argazki honek jasotzen du Gregorio Gabilondo sakristauari 1959ko apirilaren 12an egindako omenaldia. Era horretan, urtetan egindako lana eskertu nahi izan zion herriak. Goizean meza, ondoren Luistarrek aureskua dantzatu zuten, eta jarraian bazkari herrikoia egin zen. Bazkaria Beroako jantokian prestatu zuten, baina herriko plazako arkupeetan elkartu ziren bazkaltzeko ia 400 lagun. Lekukoek gogoan dutenez, orduan alde bateko arkupeak zeuden bukatuta, eta bertan mahaiak jarri eta bazkaldu zuten. Bukaeran sakristauari opari batzuk eman zizkioten. Argazkian, elizara sartu zireneko unea jasotzen da.

Garai hartako sakristau gehienek moduan, Gregorio Gabilondok ere sekulako lana egin behar izan zuen. Elizako

eginbeharretara oso lotuta egoten ziren sakristauak. Goizeko seieta hasten zen eguna, kanpandorrera igo eta kanpai jotzearekin. Jakina, eskuz jotzen zituen kanpaiak Gregoriok. Eguediko hamabietan eta gaueko zortzietan ere angeluseko kanpaiak jo behar izaten zituen. Arratsaldean, berriz, birritan mezarako kanpaiak eta iluntzeko zazpietan arrosarioko kanpaiak. Beraz, egunean sarrisari igotzen zen kanpandorrera kanpaiak jotzera, eta domeketan eta hiletak izaten zirenean ere nahiko lan izaten zuen. Zer esanik ez, Aste Santuan lana bikoiztu egiten zitzaion. Bestalde, elizarako beste hainbat lan ere egin behar izaten zituen: mezetan dirua batu eta eliza txukun eduki, besteak beste.

Argazkian erdi-erdian ageri da Gregorio Gabilondo, ordura arte sakristau izanda-

koa, eta atzean datoz, Angel Garmendia parrokoa eta Esteban Leanizbarrutia, orduko alkatea. Atzerago, berriz, Eulogio Isasmendi eta Felix Pagaldai zinegotziak. Esan bezala, makilak goian dituzten dantzariak Luistarrak dira.

Gregorio 1966ko abuztuaren 30ean hil zen, 85 urte zituela. Jaiotzez Leintz Gatzagakoa zen, baita haren emazte Paula Fernandez de Arroiabe ere. Bederatzi seme-alaba izan zituzten. Gainera, Aozaratzako maisu ere izan zen Gregorio, eta familia aurrera ateratzeko barberu lanak egin zituen, eta denda txiki bat ere izan zuen. Gregorio erretiratu zenean, Jose Luis Arratibel hasi zen sakristau lanak egiten.

Argazkia eta informazioa:
Juan Mari Iturbe eta Joxe Olabe



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Industrialdea egin zuten herrian

Aretxabaletako Industrialdea Euskal Herrian egin zen lehenetarikoa izan zen. Hasierako urteetan, Karmelo Azkoitia aritu zen gerente lanetan. Ezarri zen sistemaren arabera, lokal bat hartzen zuen enpresak errenta bidez ordaindu behar zuten 9 urtean. Horrela, urte haiek pasatuta, lokala berea izango zuen enpresa bakoitzak.



≈ 1984

Industrialdea egiten hasi baino lehenago, itxura hau zuen gune horrek. Ortuak ziren nagusi, besteak beste.



1996

Hamabi urte geroago, honako itxura zuen gune horrek. Ordurako, gainera, pabilioi gehienetan zeuden enpresak kokatuta.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 79 26 81 telefonora.



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 19a / 188. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Kepa Junkerak 'K' azken lana aurkeztuko du 26an

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Astebete barru bisitatuko du musikari bizkaitarrak Eskoriatza. Azken lanarekin Grammy sari bat lortu du; musika ibilbide luzean egindako lanaren sari. Trikitia eskuetan, eta hainbat musikariz inguruta, doinu berritzaileak entzungai izango dira hilaren 26an.

Datorren egubakoitzean musika emanaldia eskainiko du Kepa Junkera bizkaitarrak Eskoriatzan. *K* deitzen da bere azken lana. Egun horretan kiroldegia lepo beteko dela uste dute ekimenaren antolatzaileek; izan ere, oso ezaguna da musikaria. Iazko martxoan zuzenean grabatutako lana da, eta berau aurkeztera etorriko da herrira.

Baina Kepa Junkera ez da bakarrik etorriko Eskoriatzara. Izan ere, musika talde handiak laguntzen du Junkera bere emanaldietan. Albokak garrantzia du bizkaitarraren musikan; berarekin etorriko da Ibon Koteron albokaria herrira.

Bestalde, trikiti doinuak txalapartarekin nahasteko ohitura du Junkerak, eta Oreka Tx taldea ari-

Junkerarekin batera musikari ugari etorriko dira; Koteron albokaria eta Oreka Tx kasu

Askotariko doinuak sortzen ditu beste kultura batzuetako tresnekin trikitia fusionatuz

Folk estiloan Grammy bat eskuratu du aurten Junkerak 'K' azken lanarekin

tuko da, azken urteetako emanaldietan egin duten moduan.

Sarrerak erosteko bi bide daude: batetik, aldeztu erostea; eta bestetik, leihatilan bertan erostea. Aurretik erosiz gero, 8 euro ordaindu beharko dira; 10 euro egunean bertan erosita. Eskoriatzan Mirentxu tabernan eta Dorleta paper-dendan jarri dituzte sarrerak salgai.

Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin ere jarriko dituzte salmenta-guneak.

MUNDU OSOAN OIHARTZUNA

Folk estiloan Grammy saria eskuratu du Junkerak aurten *K* diskoagatik. Eskoriatzarrek esperientzia handiko musikagile horren lana zuzenean entzuteko parada izango dute.

Euskal musika eta trikitia maite duen lagun batek adierazi du ez duela emanaldira hutsik egingo. Bere hitzetan, "Junkeraren estilotik trikitia nola jotzen duen azpimarratuko nuke. Izan ere, askotariko doinuak sortzen ditu bizkaitarrak trikitia beste kultura batzuetako musika-tresnekin fusionatuz, eta ondorioz, ez du arin-arin eta fandangora mugatzen trikitia", gaineratu du.



Gaztaina erre eguna egunean

Datorren egunean, azaroaren 25ean, ospatuko dute gaztaina erre eguna Luis Ezeiza ikastetxeko jolastokian, 16:30etik 19:00ak arte. Hasteko, naturako hainbat material erabilita, eskulan tailerra egingo dute. Segidan, Luis Ezeiza Guraso Elkarteak antolatuta, gaztaina erre eta txokolate jana egingo dute herriko ume eta gazte guztientzako. 50 kilo gaztaina izango dira, eta hiru danbolin erabiliko dituzte guztiak erretzeko. Bestalde, 16 litro txokolate egingo dituzte. Bosgarren urtea da eskulan, txokolate eta gaztainak, hiruak egiten dituztela.

Ibarraundi jauregian datorren urtean irekiko dute Museo Eskola

Z.V.M.

Museo Eskolaren kokaleku berria izango da Kiroldegi aldamenean dagoen Ibarraundi jauregia. Atzo prentsaurrekoan esan zuten, datorren urterako zabaldu gura dute. Horrela, toki zabalagoa izango du; orain baino material gehiago edukiko ditu museoak.

Atzo, eguna, Museo Eskolako arduradunek eta Juan Luis Merino zinegotziak prentsaurrekoa eskaini zuten Ibarraundi jauregian. Bertan, Ibarraundi proiektu-

tua aurkeztu zuten. Museo berri eta informazio turistikoaren gune berri bezala aurkeztu zuten proiektua.

Isabel Guridik fundatzaile bezala egin zuen berba, eta duela 18 urte museo ideia sortu zenetik gaur egunerako ibilbide luze eta emankorrari buruz mintzatu zen. Nerea Arana museoak langileak ere egin zuen berba, eta baita Arrate Landak ere. Juan Luis Merino zinegotziak eraikina zergatik den ondare kultural eta turistiko azaldu zuen. Esaterako, jauregi horretan jaio zen Fernando Eskoriatza.

DATORREN URTEARI BEGIRA

Datorren urterako ireki gura dute museo egoitza berria jasoko duen Ibarraundi jauregia. Gela bakoitzean zer jarriko duten azaldu zuten atzoko prentsaurrekoan. Hiru solairutan banatuta, guztira 958 metro koadro izango ditu museoak.

Ikus-entzunezko gela handi bat eta Fernando Eskoriatzari eskainitako beste gela bat izango ditu bere baitan eraikinak. Orain arteko materialarekin batera, berria ere izango du museoak datorren urtetik aurrera.



Fernando Eskoriatza jaio zen jauregian egongo da Museo Eskola berria.

Z.V.M.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezpeja	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

AXTROKIREN AGENDA

PAILAZOEN EMANALDIRAKO SARRERAK

Azaroaren 27an Pirritx eta Porrotx pailazoez *Patata, patata* ikuskizun berria aurkeztuko dute Eskoriatzako kiroldegian. Lau euro ordaindu beharko da sarrerara, eta azaroaren 23tik aurrera hainbat tokitan jarriko dituzte sarrerak salgai. Besteak beste, Dorleta liburu dendan, Tortolis ludotekan eta Axtroki kultura elkartearen erosteko aukera izango dute interesatuek.

Gaur hasita, askotariko ekintzak aste osoan

Z.V.M.


Asteburuan musika izango da nagusi Eskoriatzan. Domekan, gazte eta helduei zuzendutako uretako parkea egokituko dute kiroldegian. Martitzenean, berriz, saskibaloia izango da nagusi eta kirol horri buruzko jardunaldia egingo da Udalak eta Kirol Elkarteak antolatuta.

Asteburuan ekimen ugari egingo dituzte Eskoriatzan. Bihar, esaterako, Eskoriatzako Bandak kontzertua eskainiko du 20:00etan; Santa Zezilia emanaldia eskainiko dute bandako kideek bihar. Hitzordua Eskoriatzako parrokiaren izango da. Domekan, Musika Eskolak antolatuta, Aretxabaleta eta Sabadellgo (Galizia) akordeo orkestraren kontzertua 13:00etan entzungai Unibertsitatean.

Bestalde, domekan gazte eta helduentzako uretako parkea irekiko dute kiroldegian. 10 urte baino gehiago dutenek 16:00etatik 18:00etara izango dute bertan aritzeko aukera; 10 baino gutxiago duten gazteek, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Antolatzaileen esanetan, 6 urtetik beherakoek nagusi batekin joan beharko dute igerilekura, segurtasun kontuak direla medio. Kiroldegiko bazkideek euro eta erdi ordaindu beharko dute; hiru euro bazkide ez direnek.

SASKIBALOA HIZPIDE MARTITZENEAN

Bestalde, datorren martitzenean, Eskoriatzako Udalak eta Kirol



Primeran pasatu ohi dute gazteek igerilekuan egokitutako jolas-parkean.

Domekan, gazteek jolasteko uretako parkea antolatu dute; bi txanda egongo dira

Elkarteak antolatuta, *El líder, la empresa y el deporte* hitzaldia eskainiko du Maria Helena Cardoso entrenatzaile brasildar olinpiarrrak, 11:30ean, osoko bilkuren aretoan. Interesa duen orok har dezake parte goizeko mintzaldian.

Bestalde, 16:00etan, Maria Helena Cardoso eta Maria Hele-

Martitzenean saskibaloia buruzko hitzaldia eta arratsaldean partidua

na de Campos entrenatzaile brasildarrek saio praktikoa egingo dute ibarreko entrenatzaileentzat. Biak saskibaloia jokalariek profesionalak izan zirenetan.

Eguna amaitzeko, Hondarribia/Irun SB-Eskoriatza KE taldeek partidua jokatuko dute, 19.00etan, kiroldegian.

LABUR

Gazte teknikari posturako probak astelehenean

Eskoriatzak eta Aretxabaleta gazte teknikari bera izango dute. Azaroaren 22an, astelehena, 09:00etan euskara proba egingo dute Eskoriatzako udaletxean. Bigarrena hilaren 24an, proba praktikoa, eta azkenik psikoteknikoa egin beharko dute. Gazteekin harremanetan jarri eta eurei zuzendutako ekintzak antolatu beharko ditu. Dinamizatzaile eginkizuna izango du. Herri bietan gazteria arloan esku hartzeko plana egin eta aurrera eraman beharko du.

'Anboto'-ren kontrako euro-aginduak onartuta

Marixol Iparragirre eskoriatzarraren kontra Espainiako Auzitegiak bederatzi euro-agindu aurkeztu zituzten Bordeleko auzitegiari, eta martitzenean aditza eman zuten, onartu egin dituzte. Prokuradoreak bederatzi eskaera horietatik birentzat informazio gehiago eskatu zuen arren, epaileak euro-aginduak onartu zituen informaziorik gabe.

Hala ere, oraindik ez dute *Anboto* estraditatu; izan ere, Frantziar epaia izan arte ezin izango dute horrelakorik egin. 1994tik 1997ra bitartean hainbat atentatutan parte hartu izana leporatzen diote eskoriatzarrari.

LAGUNAK
OSTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA
HORTZ KLINIKA

~

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza

MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

BEIRALAN
KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behe • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

GORKA GARAI taxi gidaria

TAXI

Mugikorra:
607 318 560

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

SAN MILIXANAK/ 80 kilo talo, 30 kilo txistor, hamar kilo hirugihar eta salda egin zuten 'sorginek', jendea berotan sartzeko

Hotzak ez zuen jendea etxean utzi, eta asko izan ziren azoka ikustera bertaratutakoak

Z.V.M.

Giro paregabean ospatu dute hamabigarren San Milixaneko eskulan azoka. Hamabost artisauk euren lana nola egiten duten erakutsi zieten hara gerturatutakoei. *Sorginek* ere ez zuten lan makala egin; bisitariak berotan sartzeko erronka izan zuten.

Aurtengo San Milixan azokak arrakasta izan du. Iragan domekan elkartu ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako hamabost artisau Gatzagan. Nahiz eta baten batek azoka egunean elurra egingo zuela esan, eguraldi hotza bai, baina zerutik ez zen malutarik erori egun osoan.

Giro hotza ez zen jendea herrira gerturatzeko oztopo izan. Artisauak goiz jaiki ziren domekan Gatzagara joan eta postuak egokitzeke. Pilotalekuan egokitu zuten azoka txikia, eta hamabostek euren lanak erakutsi zizkieten kuxkuxeroei. Zenbait postutan, artisauak lanean ikusteko aukera egin zen. Gainera, antolatzailerik aditzera eman dutenez, urtero artisau desberdinak eramaten saiatzen dira.

'SORGINEN' EDABE BEROAK

Herrira bertaratu ziren askok artisauak ikusi zituzten lehengo. Ikusi eta zerbaite erosi. Ondoren, Sorginak emakume taldeak antolatutako jaki goxoak dastatu zituzten. Izan ere, eguraldia lagun ez eta hotza hezurretaraino sartu zitzaion askori.

Horri aurre egiteko, hogeita bi *sorginek* prestatutako 80 kilo talo, 30 kilo txistor, hamar kilo hirugihar eta salda beroa zuten zain pilotalekuan bertan. Baina bazuten edateko besterik ere; sagardoa, ardoa eta txakolina hartu zuten, bisitariak asko izan ziren eta. Trikitilariak ere lan polita egin zuten domekan, euren doinuek azoka girotzeko balio izan zuen-eta. Bisitari gehienak oso gustura geratu ziren domekan ospatutako San Milixan ferian ikusitakoarekin.



Askok berotu zuten gorputza salda bero-beroarekin.



Produktu biologikoek jendearen arreta pizten dute.



Askotariko euskal jantziak ikus zitezkeen domekan Gatzagan.



Zapataria lan eta lan aritu zen jendearen begiradapean.



Sorginek ez zuten lan gutxi izan domekan denentzako janaria prestatzen!




Familian gerturatu ziren asko domekan Gatzagara.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txalaparta
taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIAMATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIAMATZA



Maulanda *merenderoa*



MAULANDA MERENDEROA

Maulanda auzoa, 20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Eguneroko
menua!



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
ARÓZTEGIA

Tellería 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





MONDRA-UDA

Debagoieneko derbi klasikoena Goiena Telebistan



Ikustekoa!

MONDRA-UDA
Laguntzaileak : Amets, Basati, Iamai Kafe Antzokia,
Irati, Iturriotz, Itzala, Monte, Okoretegi, Ezkutu,
Ibarra jatetxea, Haizea

Zapatuan, azaroaren 20an
Atxabalpe futbol zelaian, 15:30ean
20:00etan GOITBn